



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Testuingururik gabe



Ilustrazioa: JONBI EGURZEGI

Aurrekoan eman zuten **ETBn Gladys del Estalen hilketaren urteurrenaren harira eginiko saioa**. Lagunen eta militantzia kideen, lekukoen, testigantzak. Garai hartako poli-ziaren jarrerari kritika. Piano musika melankolikoa. Borroka ekologistaren aldarri *naive* bat. Baina hori guztia, gertaeren testuinguru orokorretik urrun. 1979ko ekaina zen eta urte hura mugarri izan zen Euskal Herrian. Aipatu telebista saioan, egun berean beste ekitaldi bat, ez hain erradikala, omen zegoela dio Milagros Rubiok, Tuteran EMK alderdiko zinegotzia zenak. Baina telebista publikoko kazetari-ek ez dute uste hari horri tiratzea esanguratsua denik ikuslearentzat.

1979ko udaberrian giro optimista zegoen Euskal Herriko militantzia konprometituaren artean. Apirileko hauteskundeetan, Herri Batasuna bi-

garren indarra bihurtu zen, eta beste alderdi iraultzaileekin batera adostu-tako herri hautagaitzek ere emaitza bikainak izan zituzten. Aste batzuk baino ez ziren igaroak Konstituzioa-ren erreferendumetik. Askorentzat mezua argia zen: Euskal Herriak ez zuen Espainiako monarkiaren Konstituzioa onartu. Frankismoarekin apur-keta lortzeko, bide berri bat irekitzeko aukera zegoen Euskal Herrian. Herri Batasunak bere hautetsiekin eta mu-gimendu herritarrekin batera, estatu-tu proposamen herrikoi bat eratzeko asmoa adierazi zuen. ETA militarra inoiz baino indartsuago ageri zen, go-bernua negoziatzera laster eserarazi-ko zuela erabat sinetsirik.

Eskuinekoen artean beldurra hedatu zen. Tuteran inperialismoaren eta energia nuklearraren erabileraren aurka milaka lagun bildu ziren egun berean, Mendizorroztako futbol ze-laia ere mukurru bete zen. Gasteizera

deitu zuten PNVk, PSEk eta Euskadiko Ezkerrak eta alderdi horietako haute-tsi guztiak bertaratu ziren. Helburua, 1977an aukeratutako parlamentari-ek idatzitako estatutu proposamena bul-tzatzea eta herri mugimenduei eta al-derdi iraultzaileei ekinbidea moztea. 1979ko ekainaren 3an bi mundu ikus-keraz zeuden aurrez aurre. Gasteizen bildutakoek politika gorbataz jantzi-tako gizonen esku utzi behar zela de-fendatzen zuten. Tuterara hurbilduta-koek bestelako mundu bat exijitzen zuten, herritarren beharren arabera egituratutakoa eta elitearen interes berekoia geldiaraziko zituen.

Horixe bera zen ekidin beharrekoa. Horixe bera zen gobernuak jomugan zuena. Horixe bera, beldurtu eta desaktibatu behar zena. Horretara jo-an zen polizia Tuterara. Nafarrei era-kutsi behar zitzaizkien zer zekarren go-bernuaren aurka egoteak: heriotza. Hori zuen basko matxinatuekin el-kartzeak. Polizia, borrokak eta tiroak. Gladysen heriotzatik egun gutxira, Carlos Garaikoetxea nafarra aukeratu zuten Euskal Kontseilu Orokorreko (CGV) presidente. Berak negoziatu zuen, Moncloako jauregian eta herri-tarren begietatik urrun, autonomia estatutuaren azken bertsioa. Aldi be-rean, gobernuak Herri Batasunaren ekitaldi publikoak debekatu zituen uda hartan, Espainiaren batasunaren aurka zeudelako. Zenbait aste beran-duago, Nafarroa estatututik kanpo mantentzearen aldeko jarrera adiera-zi zuten PSEko nafar buruzagiek eta Garaikoetxea lehendakari bihurtu zen. Bere lehen gobernuan, enpresa garrantzitsuetako goi-kargudunak. Energia nuklearraren aldeko jarrera argiarekin, euskal gobernu autonomi-koa eratu zen Gladysen heriotzatik urtebete baino gutxiagora. Eta Alian-za Popular-ek eta UCDk publikoki txalotu zuten. Baina ETBn nahiago dute horretaz guztiaz ez akordatu... •